


IGANTZIKO BESTAK





IGANTZIKO EGITARAUA

IRAILAK 19, LARUNBATA

09:00etan gosaria Mukiegiko ehiztarien bordan. **09:30ean** plater tiroa Mukiegiko ehiztarien bordan. **12:00etan** herriko frontenis finalak. Gaztetxoak eta helduak. **16:00etan** mus eta partxis lehiaketa Baratxondoren. **20:00etan** herriko dantza taldearen emanaldia.

IRAILAK 20, IGANDEA

10:00etan karrikabuelta txistulariekin. **11:00etan** ajoarriero lehiaketa. **12:00etan** XXIII. Gazta Lehiaketa. **18:30ean** karrikabuelta kankailuekin eta buruhandiekin herriko trikitilari gazteen laguntzarekin. **19:00etan** gazta eta opil dastaketa eta herriko trikitilari gazteen emanaldia.

IRAILAK 25, ORTZIRALEA

17:00etan goitibehera txapelketa. **20:00etan** altxaferoa. **20:30ean** karrika buelta kankailu eta buruhandiekin gaiteroak alaitua. **00:00etan** Trikidantz.

IRAILAK 26, LARUNBATA

10:00etan karrikabuelta gaiteroekin. **11:00etan** toka txapelketa frontoian haurrentzako eta helduentzako. **12:00etan** kankailu topaketa, Oiartzun, Sunbilla eta Igantzi konpartsekin, gaiteroek alaituta. **18:00etan** Herri kirolak. Herriko haurren erakustaldia Nafarroako arpana txapelketa mistoa (kanporaketa). Ondotik gazteen arteko

desafioa. **21:30etik 00:00etara** txaranga. **00:00etan** betizuak zezen plazan. **01:00etatik 05:00etara** DJ Endara plazan.

IRAILAK 27, IGANDEA

10:00etan karrikabuelta txistulariekin. **12:00etan** txistu kontzertua elizako atarian. **17:00etan** herriko gazteen pilota partidak: Txoperena eta Oliden Canabal eta Garmendiaren kontra. **20:00etan** Lesakako Bandaren kontzertua. **21:30ean** haurrentzako zezensuzkoa.

IRAILAK 28, ASTELEHENA

09:00etan gazteen gosaria. **10:00etan** karrikabuelta txistulariekin. **10:00etatik 12:00etara** haurrentzako puzgarriak frontoian. **11:00etan** haurrentzako animalia zezen plazan. **12:00etan** betizuak zezen plazan. **14:00etan** haurrentzako herri bazkaria. **14:00etan** herri bazkaria bertsulariekin alaitua. **15:00etatik 18:00etara** haurrentzako puzgarriak frontoian. **19:00etatik 21:00etara** Jaiak txaranga.

IRAILAK 29, ASTEARTEA

09:30ean karrikabuelta txistulariekin. **09:30ean** karrikabuelta ezpata dantzarietara. **11:30ean** meza nagusia abesbatzak alaitua. Bandera arbola doinuari dagokion ikurri agurra eta ezpata dantzari eta dantzarien saioa. **17:00etan** soka dantza. **19:30ean** mutxikoak.



ELEKTRIZITATE LANAK
Erreformak, etxe berriak,
Lantegietarako mantentze-lanak

EGUZKI
PANELEN
INSTALAZIOAK

ONGI PASA BESTAK!

948 631 217 | 630 136 863
Julio Caro Baroja 6, 31780 Bera
jaurenabera@gmail.com



**AINHOA
ALTZUGUREN MITXELENA
ABOKATUA**

Dibortzioak | Kontratuak | Arazo administratiboak
BERA | M. 630 972 189 | ainhoaaltzuguren@gmail.com

Guillermo LARRAÑAGA
doktorea

**KIRURGIA
KARDIOBASKULARRA
FLEBOLOGIA
LINFOLOGIA**

Barizeak
Kirurgia integrala
Ekografia kardiobaskularra
Tratamendu estetikoak
Zainetako ultzerak
Gaixotasun linfaticoak

M. 610 549 507
Centro Médico Bera
San Esteban, 17 | BERA





ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11
ONGI PASA BESTAK



Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
@ info@zumarbel.es
www.zumarbel.es

L'IDERA
HORTZ KLINIKA

**INGURUNE BERRIA
ZURE IRRIARENTZAT**

Ortodontzia eta odontopediatria,
odontologia orokorra, endodontzia,
inplanteak, errehabilitazio protesikoa,
hortzetako estetika, eta abar.

Iturrunzubiko pl. 9-10 **LESAKA** | T. 722 662 478
lidera@hortzklina.es | @liderahortzklina



**BESTAK
GOZATU!**




txalupa
Arraindegia

Eguneko arraina
Itsaskiak
Izoztuak
Gazituak
Kontserbak

Kanttonberri, 3 | BERA | 948 631 575 | 694 207 129

Gora Sanmigelak!

Denbora berriak datoz baina zuekin izango gaituzue...

...biba Sanmigelak eta biba zuek!!!

bortzirudi
in primategia

948631521
bortzirudi@gmail.com

kopistegia · rotulazioa · serigrafia · papertegia
astalehenetik ostiralera 9:30etatik 13:30etara

Goieko
GOI MAILAKO EKOLOGIA

Ongi pasa bestak!

Bidaurre Ureder Ind. 2. P4 partzela 20305 Irún ☎ 943 63 45 36

Ongi pasa
Igantziko bestak!

Irisarri
LAND



IrrisarriLand.com

Ongi pasa bestak!

La Villa
JATETXEA 1787tik

EGIN ZURE ERRESERBA!

948 39 48 39 | Nagusia, 14 - IGANTZI



«Besta inguruan sozializatzen dugu eta balio aunitz jartzen ahal ditugu jokoan»

LUKEN URTXEGI URRA IGANTZIKO GAZTEA



Luken Urtxegi Urrea, Igantziko frontoi parean.

Unax Ordoki IGANTZI

Luken Urtxegi Urrea 20 urte dituen igantziarra eta azkenengo urteetan mendiko gidari ikasketak egiten ibili den gaztea da. Horrez gain, afizioz, mendian «edozer» egitea gustuko duela erran digu, eta honetan denbora aunitz igarotzen duen arren, «herriko kontuetan bueltak ere» ibiltzen dela kontatu digu Urtxegik. Nafarroako Koxkor Biltze Txapelketan txapeldunorde gelditu zen eta Sarako Kontrabandisten lasterketan bigarren saria ere eman zuen etxera. «Bizitzeko modu» gisa hartzen ditu dagoeneko «denborapasa moduan» dituela erratera ausartu ez den kirol hauek. Bere egunerokoan parte bilakatu baitira. Herriko dantza taldean eta herriko kankailu eta buruhandiekin ere ibiltzen da Igantziko gaztea harat eta honat.

Herria eta bestak bixi-bixi

Igantziko «herri ttiki eta bixia» dela erran digu. Bixiagoea oraindik udaran, eta batez ere, Urtxegi eta bere bizilagunek ate joka dituzten Sanmigeletan: «Aurten, irailaren 26an

hasiko dira, ortziralea, eta irailaren 29an, asteartea, bukatuko dira San Migel egunean». Bestak hurbil daudela, besten antolakuntzan eta dantza taldean pasatzen ditu orduak, bestetako egitaraua aste bat lehenago hasten baita herriko dantza taldearen emanaldiarekin, bertzeak bertze: «Igantziko besten aitzineko astean dantza emanaldia, gazta lehia-keta, plater-tiro lehiaketa, frontenis txapelketa eta Baratzondo elkartearen, mahai joko txapelketa izaten dira». Behin bestak hasita, urteroko plana izaten da gazte gosaria, herri bazkaria eta baita herri kirolak ere: «Aurtengoan, herri kirol taldeak erakustaldi moduko bat egingen du Basaburuarekin batera, haurren kategorian, eta bertzetik, Igantziko gazteak herri kirol bereziak egiten ibiliko gara».

Lan handia ospatzen

Egitarau zabala antolatzea erreza ote den galdetu, eta «gauden momentuan herri batean ere ez dela erraza» dio Urtxegik, nahiz eta azkenengo emaitza ona izatea lortzen duten. «Jendeari gero eta gehiago



kostatzen zaio herriko kontuetan murgiltzea, baina aldi berean, taldeka antolatzen garenez ongi funtzionatzen dugula eta emaitza ona lortzen dugula beti uste dut». Hala ere, bestak antolatzeraz animatzen diren gazteenak «gogo eta motibazio» gehien dutenak direla ere aipatu digu: «Berriki sartzen direnek ekartzen dute motibazio gehien. Nahiz eta antolakuntzaren zati ez hagitz handia hartu euren gain, gogoarekin parte hartu eta ahal dutena egiten dute».

Bestetako asteburuan ondoko herrietatik jendetza hurbiltzea gustuko dute antolatzaileek. «Urtean zehar ez da herrian besta egiteko aukera handirik izaten. Inauteak kenduta, bestak izaten dira aukera bakarretarikoa Igantzin besta egiteko eta herrikoa ez den jendea Igantzira hurbiltzeko. Ondoko herrietakoak Igantziko bestetako ortziraletan eta larunbatean herrira hurbiltzeak motibazio puntua ere ematen digula uste dut. Aunitz eskertzen dugu».

Hala ere, bere gogo gehienak egun berean egiten diren bi otorduetako

ditu gordeta: «Gazteak egiten dugun gosaria eta herri guztiak egiten dugun bazkaria izaten dira niri gehien gustatzen zaizkidan momentuak».

«Besta herrikoi, parte hartzaile eta errespetuzkoak» espero ditut

Igantziarra besten inguruan solastatzen ari zela, bestak, «urte osoan zehar ondoan ditugun balioak eta ideiak transmititzeko momentua» izatea garrantzitsua dela azpimarratu du: «besta oro borrokarako lekua dela uste dut. Bestaren inguruan sozializatzen gara eta balio aunitz jartzen ahal ditugu jokoan besta giroan. Bai irabazteko edo bai galtzeko». Are gehiago, «besta herrikoi, parte hartzaile eta errespetuzkoak» espero ditut Urtxegik, inolako erasorik onartuko ez den eta elkarlanean oinarritutako bestak izatea, alegia.

Igantziko bestak ate joka ditugun honetan, Igantzira etortzeko gonbita zabalduz eman dio akabera elkarriketari, «gogo handia» duela azpimarratuz.



BIZIKLETEN SALMENTA,
KONPONKETA ETA ALOKAIRUA

ARROPA ETA OSAGARRIEN GUNEA

Bidasoa, 76, BERA | T. 948 631 218 | joxemi@kateabike.com


www.kateabike.com



E D A R I A K



Ongi pasa
bestak!



MANUEL TABERNA S.L.

📍 Bidasoa, 76 - 31780 BERA

☎ 948 63 10 27 📞 670 598 560

@info@tabernaedariak.eus

🌐 www.tabernaedariak.eus



**Igantziko Udalak
besta onak
opa dizkizue
igantziar eta
bisitari guztiei**

